



COVID 19AREN AURREAN JARDUTEKO KONTINGENTZIA PLANA



2020-2021 IKASTURTEA



Aurkibidea

1. SARRERA

2. PREBENTZIO NEURRI OROKORRAK

3. IKAS-IRAKASKUNTZA PROZESUARI ERAGITEN DIOTEN NEURRIAK

HIRU AGERTOKI DESBERDINETARAKO IKAS-IRAKASKUNTZA PLANA

OSASUN MENTALA ETA ONGIZATEA

INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

4. COVID-19 KASUAK SORTUZ GERO JARDUTEKO PLANA

1. SARRERA

Dokumentu honen helburua COVID-19aren aurrean ikastetxean abian jarriko ditugun prebentzio neurriak zehaztea eta ezagutaraztea da.

HELBURUAK:

1. Irakaskuntza presentziala berrabiarazteko orduan, pertsonen segurtasuna eta osasun baldintzak bermatzea.
2. Birusa kutsatzea eta zabaltzea saihesteko, ikastetxean COVID-19aren prebentzioa, detekzio goiztiarra eta kontrola ziurtatzea.
3. COVID-19aren aurrean, ikastetxeko langileen osasuna bermatzeko prebentzio neurriak eta jarduerak ezagutaraztea.
4. Alerta zaintzea eta mantentzea, neurrien izaera dinamikoa aintzat hartuz eta osasun agintariek ezarritako jarraibideen arabera eguneratu daitezkeela kontuan izanik.

Bizi dugun larrialdi egoerak Hezkuntza-komunitateko kide guztien erantzukidetasuna eskatzen du, kutsatzeko arriskuak minimizatzeko eta bizi dugun osasun-larrialdiaren ondoren ikastetxean ohiko jardura berreskuratzeko.

Kontingentzia Plan hau hainbat dokumentu kontuan hartuta sortu dugu:

- Ikastetxeetan koronabirusaren aurrean jarduteko Protokolo orokorra (2020-21 ikasturtea).
- Lan-arriskuen prebentziorako neurriak EAEo ikastetxeetan, COVID-19aren eraginpean egoteko arriskuari aurre egiteko (2020-2021 ikasturtea)
- Kurtso Hasierako Ebazpena.
- 2020-21 ikasturte hasierarako Hezkuntza Sailak eta Osasun Sailak elkarlanean prestatu duten Jarduketa-protokolo Osagarria.
- PIO BAROJA BHIko 2019-2020 ikasturte bukaerako prebentzio-neurrien plana.

2. PREBENTZIO NEURRI OROKORRAK

1) Segurtasun-tartea:

1,5m-ko segurtasun-tartea mantentzea pertsonen artean, ahal den neurrian.

2) Musukoa:

Maskararen erabilera derrigorrezkoa izango da ikastetxean, bai eta jolaslekuan ere.

Institutuak musukoak izango ditu irakasleentzat eta ikastetxeko langileentzat. Ikasleek nork bere maskara eraman beharko du, baina ikastetxeak maskara bat bermatuko die, ikastetxera sartzean maskara hori faltan duten ikasleei.

3) Eskuen higiena:

Ikastetxean sartzen den guztiak eskuak garbitu beharko ditu sarreran egongo diren xaboi edo desinfektatzaileekin. Ikasgeletan eta komunetan ere egongo da xaboi edo desinfektatzailea eta papera. Ikasle eta langileek higiena zaindu dezatela azpimarratuko da.

4) Aireztatzea:

Gelak maiz aireztatuko ditugu. Horretarako, zerrendak prestatu dira eta zehaztuta egongo da astero zein ikasle arduratuko den 10 minututan leihoak zabalik egon daitezen. Jolas garaian ere irekita utziko dira.

5) Gela bereziak (laborategia, gimnasioa, informatika-gelak, bikoizketak):

Ikasleek eskuak garbituko dituzte lanean hasi aurretik. Klase hasieran ikasleak arduratuko dira erabiliko duten materiala desinfektatzeaz beti ere irakaslearen gain begiradapean.

Aldagelak erabiltzeko irakasleak talde txikiak egingo ditu eta txandaka sartuko dira bertara.

Ezingo dira dutxak erabili.

Gela berezi horietako irakasle arduradunek azalduko dizkie bertan mantendu beharreko neurri bereziak

6) Garbiketa eta desinfekzioa:

Bereziki zainduko da garbiketa eta desinfekzioa, garbiketa-programa trinko baten bidez, egunero egingo da.

7) kontaktu-kopurua murrizteko:

Kokapen aldetik ikasleak banaka jarriko ditugu talde guztietan. Ikasle bakoitzak beti mahai bera erabiliko du, bikoizketetan ere bai.

Bikoizketetan ikasleek erabilitako mahaiak garbituko dituzte. Bikoizketetarako erabiltzen diren geletan, material guztia jasoa utziko dute ikasleek. Bakoitzak bere materialen txukuntasuna bereziki zainduko du.

Ikastetxean zehar desplazatzeko zehaztutako ibilbideak erabiliko dira. Ikasleek beraien eskola-materialak

ez dituzte konpartituko.

Ikasleek ez dute eskola-materialik gelan utziko.

8) Sarrerak eta irteerak:

Ikastetxea 7:40ean irekiko da, ikasleak taldeka sartuko dira eta sartzera eskuak desinfektatuko dituzte. Modu mailakatuan sartuko dira iristen diren heinean, ikasgelak irekiak egongo dira eta ikasle bakoitza bere gelara joango da eta bere lekuan eseriko da.

Horretarako lehen orduan klasean duen eraikuntzaren atetik sartuko direlarik, eta ahal den neurrian ilaran joango dira bata bestearen atzetik.

Klase irteeretan antzera jokatuko da, hau da, azken klasean izan de eraikuntzako atetik aterako dira, eta ahal den neurrian ilaran joango dira bata bestearen atzetik.

Igogailua banaka erabiliko da, horretarako baimena duen ikasleen kasuan soilik.

ORDUA	TALDEA	LEKUA
7:45	1A, 1B, 1C, 1D	Gelatik hurbilen dauden eskaileretatik
7:50	1E, 1F, 1G, 1H	Gelatik hurbilen dauden eskaileretatik
7:55	1I, 1J, 1K, 1L	Gelatik hurbilen dauden eskaileretatik
7:45	2A, 2B, 2C, 2D	Gelatik hurbilen dauden eskaileretatik
7:50	2E, 2F, 2G, 2H	Gelatik hurbilen dauden eskaileretatik
7:55	2I, 2J, 2K, 2L	Gelatik hurbilen dauden eskaileretatik

9) Ordu aldaketak:

Ikasleak gela batetik bestera mugitu behar badira, korridorean zein eskaileretan, eskuinetik joango dira, eta markatutako ibilbideak jarraituko dituzte.

Ahal denean, txirrinak jotzen duenean hurrengo orduko irakaslea kanpoan egongo da itxaroten. Ikasleek ezingo dute klase tartetean korridorera atera.

10) Jolas garaiak

Modu ordenatuan jaitsi eta igoko gara patiora, ahal den neurrian ilaran joango dira bata bestearen atzetik.

Horretarako klasean duten eraikuntzaren atetik irtengo dira eta klasea izango duten eraikuntzaren atetik igoko dira (horretarako, errekreora behar den materialarekin atera beharko dute).

11) Komunak erabilera:

Ikasleak ikastorduetan joango dira, ordu-aldaketetan ezingo da joan, pilaketak ekiditeko. Komunak banaka



erabiliko dira, itxaronaldian pertsonen arteko distantzia gordez.

Komuneko estalkia jaitsita duela hustuko da zisterna.

Eskuak garbituko dira komunean sartu eta atera ondoren.

Gelatik hurbilenean duten komuna erabiliko dute.

Patio orduetan, ahal den neurrian, komunera joatea ekidingo da, jende pilaketarik eman ez dadin.

12) Jangela (B4 gela)

Ikasleek zein irakasleek B4 gela erabil dezakete ikastetxean bazkaltzeko.

Gela hori 1 eta 2 agertokietan erabili ahal izango da. Jankideen artean 1,5m-ko distantzia bermatuko da eta horretarako behar izanez gero txandak egingo dira.

Erabiltzaileek, B4 gelan egongo den erregistro orria bete beharko dute eta erabiltzen duen espazioaren garbiketa egin beharko du, horretarako prest aurkituko dituen produktuekin

13) Bilerak:

Batzar edo bilera jendetsuak saihestuko ditugu.

Urruntze eta higiene-neurriak betetzen ez dituzten ekitaldirik ez da egingo.

14) Ikastetxera etortzen diren bisitarien kopurua mugatu:

Ikastetxera etorriko diren pertsonen kopurua mugatuko da. Hori dela eta gurasoek ikastetxera etorri nahi badute, deitu eta ahal den neurrian hitzordua jasoko dute.

Lehentasuna emango zaio Inika eta telefono bidezko komunikazioari.

15) Administrazioako langileak:

Leihatilara hurbiltzen direnekin materialik ez dute partekatuko. Nork berea ekarriko du.

16) Irakasle gela:

Gela hau, mintegietan tokirik ez baldin badago erabiliko da, bai lana egiteko, bai zaintzak egiteko ere.

17) Jarraipen-batzordea:

Jarraipen-batzordea sortuko da. Partaideak: zuzendaria, ikasketa burua, lan-arriskuen arduraduna, COVID-19 arduraduna OOGko familien ordezkaria, Berritzeguneko erreferentea eta Ikuskaria.

Ikastetxeak hartutako neurriek ez dute inolako zentzurik izango denok errespetatzen ez baditugu. Banakako erantzukizuna eskatzen dugu, guztion osasuna jokoan dagoelako.

Oraindik definitu gabeko alderdiak egon daitezke eta Hezkuntza zein Osasun sailak bidal ditzaketen jarraibide berriek, neurri horiek guztiak aldatu egin ditzakete, momentuan dagoen egoerari egokitzeko.

3. IKAS-IRAKASKUNTZA PROZESUARI ERAGITEN DIOTEN NEURRIAK

HIRU AGERTOKI DESBERDINETARAKO IKAS-IRAKASKUNTZA PLANA

1 AGERTOKIA: normaltasun-agertokia, non aurrez-aurreko irakaskuntza-jarduera modu normalizatuan gara daitekeen, datu epidemiologikoez eta osasun-agintarien gomendioen arabera.

Egoera honetan egoteko aukera izango bagenu, dokumentu honetan agertzen den segurtasun protokoloa aurrera eramanez, ahalik eta kalitate hobereko irakaskuntza eskainiko genuke modu presentzian.

Agertoki honetan, ikasleren batek berrogeialdia gorde beharko balu (edozein izanik arrazoia) gelan hamabosteroko arduradunak diren ikasleek helaraziko liokete beharrezkoa duen informazioa eta ondoren irakasle titularrekin kontaktuan jarriko litzateke ikasgaiaren jarraipena nola egin azaltzeko.

2 AGERTOKIA: egoera mistoa, aurrez aurreko jarduera eta jarduera telematikoa txandakatuz eta aldi berean eginez gauzatuko dena.

Modu mistoan eskolaratu beharko bagenu, gelaka egingo da ikastetxean eta etxean egongo diren ikasleen banaketa. Talde bakoitza bi azpitaldetan banatuko da, A eta B.

Txandaka bi egunetik behin eskolaratuko lirateke..

Agertoki honetan, ikasleren batek berrogeialdia gorde beharko balu (edozein izanik arrazoia) gelan hamabosteroko arduradunak diren ikasleek helaraziko liokete beharrezkoa duen informazioa eta ondoren irakasle titularrekin kontaktuan jarriko litzateke ikasgaiaren jarraipena nola egin azaltzeko.

3. AGERTOKIA: nagusiki irakaskuntza ez presentziala edo on-line aurreikusten duena. Osasun arloko agintariak ezarritako neurrien arabera, antolakuntza eta institutuko langileen presentzia arautzeko neurriak hartuko dira, ikasleen hezkuntza-jarduerak etenik izan ez dezan.

Aurreko ikasturteko praktika onak aprobetxatu, eta puntu ahulak kontutan izanik eta ikasleei pasa zitzaizen asebetetze inkestak ateratako ondorioetatik abiatuz, honelafuntzionatuko dugu:

- Irakasleen artean, adostu egin beharko da nola bideratu behar den ikasleen ikaskuntza prozesua eta honen jarraipena.
- Ikasgai guztietan Moodle/Classroom edo baliokidea den beste edozein plataforma bat izango dugu, ikasgai guztiak modu ordenatuan jarraitu ahal izango dituzte.
- Ikastetxean daukaten ordutegia jarraituko dugu beraiekin. Modu honetan ikasleak

eskolan egongo balitz izango lukeen ordutegi berdina bete beharko du. Ordutegi horretan izango ditugu lanean, beti ere, saio horretan lantzeko moduko jarduerak aurrera eramanez. Ikasle hauekin saioaren hasieran konektatuta daudela ziurtatuko dugu (gainerakoan hutsegitea jarriko zaie), saio horretarako lana azalduko zaie eta irakasleak ikasleen zalantzak saioan zehar argituko ditu.

- Ikasturtearen hasieran familiek inkesta bat beteko dute, etxeko gailu elektronikoen edo konexioen aukera jakin dezagun eta, behar izanez gero, laguntza eskaini diezaiegun.

OSASUN MENTALA ETA ONGIZATEA

Tutoreek eta irakasleek arreta berezia jarriko diote arazo emozionalak detektatzeari eta familiarekin harremanetan jarriko dira informazioa kontrastatzeko eta ahal duten neurrian, behar den kasuetan, laguntza ezberdinei buruzko informazioa emango diete.

INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

Informazioa eguneratuta eduki behar dugu: administrazioak, ikastetxeok eta eskola-elkarteko kideok COVID-19aren inguruko informazioa eguneratua izan behar dugu, eguneratuta dauden iturri ofizialen bidez, bai sintomei dagokienez, bai transmisioa prebenitzeko moduei dagokienez; horretarako, informazioa uneoro dago eguneratuta Osasun Sailaren webgunean: <https://www.euskadi.eus/covid-19-koronabirus-berria/>

Familiekin telefonoz, posta elektronikoz, mezuz edo posta arruntez harremanetan jartzea lehenetsiko da, eta kudeaketa telematikoak egiteko bide emango da. Familiak eskola eraikinean sartu ahalko dira, beharrik egonez gero edo irakasleek edo zuzendaritza-taldeak hala eskatuz gero; horretarako, prebentzio- eta higiene-neurriak bete beharko dituzte, eta ezingo dira inolaz ere sartu, baldin eta COVID-19arekin bateragarria den sintomarik badute.

Ikastetxe bakoitzak baliabideak izan behar ditu konektatzen ez diren edo jarduera ez presentzialetan parte hartzen ez duten ikasle eta familiekiko harremana ziurtatzeko, haien egoera zein den identifikatzeko eta haren berri emateko, beharrezkoak diren baliabideak dituztela bermatzeko eta ikasle horien hezkuntza-jarraipen berezia egiteko. Hori guztia administrazioari jakinaraziko zaio, ikastetxeko erreferentziazko ikuskatzailearen bidez, laguntza eta jarraipena emateko.

4. COVID-19 KASUAK SORTUZ GERO JARDUTEKO PLANA

COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten ikasle, irakasle edo langileak ez dira eskolara bertaratuko. Ez dira bertaratuko, ezta ere, COVID-19a diagnostikatu zaielako isolatuta dauden guztiak, ez eta COVID-19aren sintomak agertzen dituen edo diagnostikoa jaso duen lagunen batekin harreman estuan egon delako etxean berrogeialdian dagoen lagun oro ere.

Beren etxeko norbaitek COVID-19aren diagnostikoa jaso badu, gurasoek edo tutoreek horren berri emango diete eskolako agintariei eta semea edo alaba etxean mantendu beharko dute.

Ikastetxean COVID-19arekin bateragarria den sintomatologia duten pertsona guztiek aurreikusitako jarduketa-protokolo bat jarraituko dute:

- a. Horretarako prestatutako isolamendu-gela batera joango dira. Gela honek higiene eta aireztapen neurri egokiak beteko ditu, eta kasu susmagarri batekin erabiltzen den bakoitzean desinfektatuko da. IKASTETXEKO ZUZENDARITZARI jakinaraziko zaio, eta hark Prebentzio Zerbitzuko ARLO MEDIKOARI JAKINARAZIKO dio.
- b. Ikaslea bada, berarekin doan pertsonak neurriak gordeko ditu: distantzia eta garbiketa.
- c. Ikastetxeko zuzendaritza edo ikastetxean Covid-19ren prebentzioaren ardura duen pertsona familiarekin harremanetan jarriko da, etxera eramateko.
- d. Familia bere osasun zentroarekin harremanetan jarriko da, haren jarraibideak betetzeko.
- e. Hezkuntza Sailaren menpeko langilea bada, isolamenduan jarriko da eta etxera joango da IKASTETXEKO ZUZENDARITZARI jakinarazi ondoren; zuzendaritzak Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuko ARLO MEDIKOARI JAKINARAZIKO dio.
- f. Beste enpresa bateko edo Administrazio Orokorreko langilea bada, ikastetxeko zuzendaritzari, dagokion Prebentzio Zerbitzuari eta Hezkuntza Sailekoari jakinaraziko die, eta haren jarraibideak beteko dira.
- g. Eragindako pertsona kasu susmagarritzat joko da, eta etxean isolatuta egon beharko du proba diagnostikoen emaitzak izan arte, Osasun Sailaren COVID-19ren Zaintza Epidemiologikoko Protokoloan adierazitakoaren arabera.
- h. Kasuaren emaitza diagnostikoa lortu arte, ez da kontaktu estuei buruzko ekintzarik adieraziko, eta irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraituko du, higiene-neurriak zorrotzuz.

i. Kasua berresten bada, kontaktuen azterketa egingo da hezkuntza-ingurunean eta hezkuntza- ingurunetik kanpo, kontaktuak ezarrita dagoenaren arabera identifikatuz, sailkatuz eta haien jarraipena eginez

Kasuak baieztatuz gero:

Kasu positibo gisa detektatutako ikaslearen guraso edo tutoreek eta horrela balitz irakasleek, berehala jakinaraziko diote ikastetxeko zuzendaritzari, erreferentziako ESI-arekin harremanetan jar dadin, eta azken hau lurraldeko Osasun Publikoko Zuzendariordetzako erreferentearekin harremanetan jarriko da.

Kasuen kudeaketan, Osasun Publikoa ikastetxearekin koordinatuko da, ikastetxeko zuzendaritzarekin eta COVID-19rekin lotutako alderdien erreferentziazko arduradunarekin. Kontaktuen azterketa egingo da hezkuntza-ingurunean eta handik kanpo, kontaktuak identifikatuz, sailkatuz eta haien jarraipena eginez, Osasun Publikoko Zuzendaritzak ezarritakoaren arabera.

Ikastetxean harreman estuak identifikatzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- A) Baieztatutako kasua bizikidetzatalde egonkor batekoa bada, harreman estutzat hartuko dira taldeko kide diren pertsona guztiak.
- B) Konfirmatutako kasua ez bada bizikidetzatalde egonkor batekoa, ikastetxeko harreman estuak identifikatuko dira, ikastetxeko Zuzendaritzarekin eta Prebentzio Zerbitzuko koordinatzailearekin lankidetzan.

Osasun Publikoko Zerbitzuak, Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuarekin batera, balioetsiko du ea irakasleak eta ikastetxeko langileak kasu baieztatuaren kontaktu estutzat hartu behar diren, hartutako prebentzio-neurrien eta egindako jardueren egokitasunean eta jarraipenean oinarrituta.

Osasun-agintariek jarraipen aktiboa egingo dute estutzat identifikatutako kontaktuen artean, eta etxean egon beharko dute berrogeialdian, Osasun Sailaren COVID-19ren Zaintza Epidemiologikoko Protokoloan zehazten denaren arabera. PCR probak egitea barne hartuko da, Osasun Publikoko agintariek ezarritako protokoloetan jasotakoaren arabera.



1 ERANSKINA.

FAMILIENTZAKO DEKALOGO-KONPROMISO AKORDIOA

Ikasturte hasiera honetan ezinbestekoa izango da ikastetxeetan segurtasuna bermatzeko zenbait neurri errespetatzea.

1. Ikasleek ezin dute ikastetxera joan sukarra (>37°C) badute. Horrek esan nahi du familiek, ikastetxera iritsi aurretik, tenperatura hartu behar dietela.
2. Familiak lankidetzan arituko dira ikastetxeak oinarrizko (higiene-ohiturak babesteko eta errazteko) helarazitako jarraibideekin, hala nola: ikastetxeko seinaleak errespetatzea, maskara erabiltzea, eskuak garbitzea, aretoak aireztatzea, bizikidetzatalde egonkorreko kide izatea eta abar. (Ikus prebentzio neurri orokorrak)
3. Ikasle batek sintomak baditu ikastetxean, familiari jakinaraziko zaio; beraz, kontakturako beharrezkotzat jotzen diren telefono zenbakiak eman beharko dira (bat baino gehiago ematea gomendatzen da).
4. Ikasleak sintomak baditu etxean, familiak tutorea jakinaren gainean edukiko du eta aldaketa esanguratsuak jakinaraziko dizkio.
5. Ikasleen gurasoek edo tutoreek eremu emozionalari buruz egoki deritzoten informazio guztia helaraziko diote beren semearen edo alabaren tutoreari, eremu horretan COVID-19 testuinguruari lotutako gabezia/zailtasunen bat aurreikusten denean.

Gogoraraztekoa da, beharrezkoa dela COVID-19aren bilakaeraren inguruan informatuta izatea iturri ofizial eguneratuen bidez, bai sintomatologiari dagokionez, bai transmisioa prebenitzeko moduari dagokionez. Informazio hori etengabe eguneratuta dago Osasun eta Hezkuntza Sailaren webgunean:

<https://www.euskadi.eus/covid-19-koronavirus-berria/>

<https://www.euskadi.eus/koronavirusari-buruzko-informazioa/web01-s2hhome/eu/>

Azkenik, eta aldi horretan familiei laguntzeko, Hezkuntza Sailak "COVID-19, familientzako orientabideak" izeneko dokumentu bat argitaratu du, etxean osasun fisikoa eta emozionala zaintzeko gomendio erraz batzuekin.

IKASLEAREN IZEN-ABIZENAK: _____

GURASO/TUTORE LEGALAREN IZEN-ABIZENAK: _____

SINADURA:

Onartzen dut hemen ageri den informazioa irakurri dudala eta funtzionamendu arau nagusiez informatua izan naizela

